

Hitz eta Pitz

Elkarrizketa:

ANTONIO VENTURA

*Antonio Ventura Fernández
(Madril, 1954)*

*Maisu-ikasketak egin zituen,
1975ean bukatuak. 17 urte eman
ditu irakasle lanetan Eskola
Publikoan, 2 PATen aholkulari
lanetan, eta 1993tik Anaya
argitaletxean, Hezkuntza
Orientaziorako Departamentuko
aholkulari lehenengo, eta 1997tik
editore eta Liburu Zopa
bildumaren zuzendari, eta duela
hilabetetik hona Haur eta Gazte
Literaturaren Zuzendari Editoriala
da. 1989an Babar aldizkaria sortu
zuen.*



«Ondo legoke kritikaren normalizazioa HGL-n»

Behinola: HGLren kritikan, lehenetsuna dute literatur balorazioek ala zama handia du lanen alde pedagogiko eta erabilgarriak?

Antonio Ventura: Oro har, haur eta gazte literaturari buruzko kritikan, erreseina gutxi-asko egokiak dira nagusi, liburuetan agertzen diren istorio eta gorabeheren buruzko erreseinak, ilustrazioei buruzko aipamen txikiren bat lehenengo irakurleei zuzendutako liburuetan, eta iruzkin didaktikoren bat eskolarako-eta. Oro har diot; salbuespenik ere bada-eta, jakina.

Behinola: Ba al da zure ustez kanonikoa deienezakeen HGL motaren bat?

Antonio Ventura: Lan handia ematen dit kanona deitzen den horrekin harremana izatea, eta ez haur literaturaren arloan bakarrik. Kanone-rako hurbiltze bezala, HGLren une ezberdinetako erreferenteak iruditzen zaizkidan lanen zerrenda ezartzeko baino ez nintzateke gai izango. Kontrako zentzuan, hau da, lan kanoniko bat taxutuko luketen osagaiak zehaztearen zentzuan, erabat eszeptikoa naiz. Adibidez, gaztelaniazko



Mikel Valverde. *Ternuako penak*

HGLren barruan, nire ustez, badira garai bat eta egiteko modu bat definitu zuten lanak, eta gaur ere oraindik, nolabait eredu direnak. Esate baterako *El hombrecillo vestido de gris*, Fernando Alonsoarena, edo *Los pequeños nazis de 43*, Juan Fariásena, gaztelaniaz aintzindari izandako lanen batzuk aipatzeagatik. Era berean, *Datrebil, 7 cuentos y 1 espejo*, Miquel Obiolsena, edo *La guía fantástica (Gidaliburu fantastikoa)*, Joles Sennellena aipatuko nituzke katalanezkoen artetik; galegoz, *Cuentos por palabras (Iragarki-ipuinak)*, Agustín Fernández Pazena, edo *Cuando de noche llaman a la puerta (Gauetz ate joka datozenean)*, Xabier P. Docamporena; eta euskaraz, *Memorias de una vaca (Behi euskaldun baten memoriak)*, Bernardo Atxagarena, edo *Mi mano en la tuya (Nire eskua zurean)*, Mariasun Landarena.

Behinola: Eta neurritz kanpo baloratuta dagoen beste HGL motaren bat?

Antonio Ventura: Bai, uste dut badirela HGLn garai eta korronte gehiegi baloratuak, baita egile espainiar eta atzerritarren batzuk ere. Azaltzen saiatuko naiz, gaia zein labaina den kontura zaitzen nahi nuke ordea. Egile atzerritarrei dago kienean batez ere, gogoan izango duzu 70eko hamarkadaren bukaeran eta 80koaren hasieran, berrikuntza pedagogikorako mugimendu batzuek HGLren hautatze-bibliografiak osatu zituztela. Horietako batzuk duela gutxi arte ibili dira hor zehar irakasleen artean, zerrenda horietako izenburu bakar bat ere zalantzan jarri gabe. Alemaniara edo daniarra izatea, eta gaien artean alkohola, droga edo sexua erabiltzea, nahikoa zen aukeratuen artean egoteko. Beste zentzu batean,

«Uste dut badirela HGLn garai eta korronte gehiegi baloratuak, baita egile espainiar eta atzerritarren batzuk ere.»

«Uste dut HGLren arloan salbuespen edo ezohikoa dela kritika eta, ausartuko nintzateke esatera, sakonean, oso jende gutxik nahi duela benetan kritika.»

eta gaztelaniaz idatzitako HGL espainiarrari gagozkiola, uste dut badela gehiegi baloratutako pertsonaiaren bat, bere balio eta interesa baduena, baina zeinaren dirdira areago zor zaion, nire ustean, kalitatezko egile ezari. Elena Fortúni buruz ari naiz. Imajinatzen dut baieztapen hau testuingurutik atera eta azkenean zabalduko dela nik esan dudala Elena Fortún idazle txarra dela.

Behinola: Zein dira zure ustez egungo HGLren kritikaren defizitak? Ilustrazioari eta itzulpenari egindakoa beharbada?

Antonio Ventura: Uste dut HGLren arloan salbuespen edo ezohikoa dela kritika eta, ausartuko nintzateke esatera, sakonean, oso jende gutxik nahi duela benetan kritika. Ez diot kritika ezinbestekoa denik ere; kulturaren beste arlo batzuetan bada, pinturan edo zinean esaterako, eta hala ere badira jendeak lotsarik gabe kontsumitzen dituen lan lotsagarriak. Guztiarekin ere, uste dut ondo legokeela HGLn kritikaren normaliza-

zioa-edo. Eta ilustrazioari buruz egin duzun aipamena dela eta, uste dut HGLren beste arlo batzuetan dagoena baino kritika gutxiago dagoela hor.

Behinola: Noraino eta nor iritsi beharko litzateke HGLren kritikara, eta noraino eta nor iristen da zure ustez?

Antonio Ventura: Uste dut, HGLren gunean, kultura deitzen dugun horren beste arlo batzuetan ematen diren mekanismo berberak eman beharko liratekeela: komunikabide nazional handietatik hitz egiten duten eta nolabait iritzia sortzen duten kritikariak, eta, hauekin batera, komunikabide txikietan lanei buruzko beren begirada ez dogmatikoa eskaintzen duten analista apalak. Nire ustez, profil oso ezberdineko pertsonak eskaini beharko lituzkete lanei buruzko beren iritzi eta kritikak; profil oso ezberdinak, baina izendatzaile komuna dutenak: eremuaren ezaguera eta «zerbait kontatzeko» beharra.



Mikel Valverde. *El pirata Pepe*



Mikel Valverde. *Ternuako penak*

Behinola: Saiatzen al zara zure aldizkarian kritika eta HGLren historiaren arteko oreka bilatzen? Zein neurritan dute elkarreragina bi aldeok?

Antonio Ventura: Beno, uste dut *Babar* ezohiko kontua dela HGLri buruzko argitalpenen barruan. Kontuan izan behar da *Babar* eskola aldizkari bezala jaio zela duela 12 urte, lehen OHO zenaren 8. mailako ikasleek egina. Ikasle haietako batzuek, gezurra badirudi ere, bizirik mantendu dute argitalpena gaur egun arte. Oso talde txikia da argitalpen apal hau aurrera darimana; HGLren barruan garrantzitsuak iruditzen zaizkigun kontuak hedatzea da gure nahia: egile, ilustratzaile edo argitaratzaile batzuen iritziak; egileren bati buruzko artikulua sakonak; liburu eta albumei buruzko iruzkinak. Hori guztia gure begirada berezitik, zenbaki bakoitzean nahi duguna eginez eta beti gozatuz.

«Hemen HGLren eskolatze handiagoa dagoela, horrek suposatzen duen menpekotasun didaktiko eta pedagogikoekin.»

Behinola: HGLren kritika literarioak izan dezake aginduzko baliorik? Zein neurritan izan dezake eragina ondorengo ekoizpenean?

Antonio Ventura: Ez dut galdera oso ondo uler-tzen, baina ez dut sentitzen kritikak aginduzko baliorik izan dezakeenik. Bestalde, ez dut ezta ere sentitzen, oro har, kritikak inolako eraginik izan dezakeenik sortzailearengan. Nik uste dut lana zintzotasunetik sortzen baldin bada eta bere egileak argitara ematen badu, honengan eragina izango duten iritzi bakarrak izango direla norberarentzat gaiarekiko izena duten pertsona gutxi horiek emandakoak.

Behinola: Ausartuko al zinateke egungo HGLren egoerari buruzko balorazio kritikoa egiten?

Antonio Ventura: Uste dut Espainiako egungo HGL, oro har, lehen mundu europarrarekin, zehinetan etengabe dioskutenez gu ere bagauden, homologagarria dela. Egia da konturen bat zehaztu egin beharko litzatekeela: alde batetik, estatuko literatura guztiak ez dute osasun bera; eta guztiak, ezta gaztelaniazkoa ere, ez dira literatura europar osasuntsuenekin homologagarri. Estatuan, nire ustez, galiziarrek oso une onean daude, eta beste aldean katalanak unerik baxuenean. Beste alde batetik, estatuko ekoizpenaren egoera



Mikel Valverde. *Ternuako penak*

«Ez dut estatuko hizkuntzetan idatzitako HGLen arteko ezberdintasunik ikusten.»

gertuko ingurukoarekin (Frantzia, Alemania, Italia) alderatzen badugu, iruditzen zait hemen HGLren eskolatzeko handiagoa dagoela, horrek suposatzen duen menpekotasun didaktiko eta pedagogikoekin. Azken urteotan berpiztu egin dira nolabait album ilustratuak, baina hala ere, interesik gabeko produktu atzeritar asko argitaratzen jarraitzen dugu, eta bertako ekoizpena urria da, Kalandraka argitaletxearena salbu, zeinak apustu garrantzitsua egin duen bertako sortzaileekin. Azkenik, esan behar da bertakoa gehiegi baloratzeak interes literario-dun produktuak baino interes etnologikodun produktuak argitaratzera garamatzala.



Behinola: HGL periferikoak deiturikoak (katalana, galiziarra, euskalduna, etab.) HGL espainiarren azpisistematzat har daitezkeela pentsatzen duzu, edo eremu zabalago batean kokatuko zenituzke?

Antonio Ventura: Bat etorriko zara nirekin esaten badizut galdera honi erantzutea, euskal komunikabide batentzat eta ni Madrileko argitaratzaile bat izanda, gutxienez korapilatsua badela; baina azaltzeko gai izango naizela espero dut. Ez dut estatuko hizkuntzetan idatzitako HGLen arteko ezberdintasunik ikusten. Bakarra hizkuntza horien hiztun kopurua izango da. Hau da: hizkuntza batean idazle gehiago edo gutxiago izango da, hizkuntza hori duten lagun jantzien kopuruaren arabera; ezagutzen ez dudana biztanle eta idazle arteko proportzioa da. Katalanak une

zoragarria izan zuen 80-ko hamarkadaren bukaeran Joles Sennell, Miquel Obiols eta Emili Teixidorrekin; era berean, 90-ko hamarkadaren bukaeran, galiziarren HGLren unerik gorenena bizi izan dugu beharbada, Agustín Fernández Paz, Xabier P. Docampo eta Fina Casalderreyrekin, hiru bakarrik aipatzeagatik. Beharbada, gertatzen dena da HGLn tradizio eza nabaria dela aztergai ditugun hizkuntzetako edozeinetan, eta gainera, kasu bakoitzak, nire ustez, berariazko konnotazioak ditu, suhartasun eta aurreiritzirik gabe begiratu eta aztertu behar harko lirartekeenak. Guztiarekin ere, hizkuntza gutxituen babes beharrezkoak ez luke inoiz eraman behar literatura txarra argitarat-

tzera, eta uste dut ari dela hori gertatzen.

Behinola: Aski ezaguna al da HGL euskalduna estatu espainiarrean?

Antonio Ventura: Galizieraz eta katalanez irakurtzen dut eta, jakina, amets egiten dudaneko hizkuntzaz, gaztelaniaz; baina, urtebetez Gipuzkoan bizi izandakoa baldin banaiz ere, hizkuntza erabat opakoa da niretzat euskara. Uste dut espainiar asko iritzi berekoak izateak izan dezakeela eraginik euskal literatura galiziarra edo katalana baino gutxiago ezagutu dadin, ez dakit. Egia da baina, azken urteotan, euskal sortzaile nomina garrantzitsua irten dela bere herrialdeko mugetz harantzago eta jende dexentek ezagutzen duela: Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide edo Karlos Linazasoro, hiruarekin jarraitzeagatik.